



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA

**Kulturak gatazka elikatzen
duenean. Europako Kultur
Hiriburuen hiri paradoxen
azterketa kritiko bat**

Xabier Polledo Arrizabalaga

77-84 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.03.09>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Kulturak gatazka elikatzen duenean. Europako Kultur Hiriburuen hiri paradoxen azterketa kritiko bat

Xabier Polledo Arrizabalaga
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
xabier.polledo@ehu.eus

Laburpena

Europako Kultur Hiriburuaren (ECOC, European Capital of Culture) programak Europako nortasun kulturala sustatzetik hiri garapen helburu zabaletarantz izan duen bilakaera abagune hartzen du ikerketa honek. 2007tik 2019ra bitarteko 27 hiriburuetan zentratuz, ikerketak modu kritikoan aztertzen ditu programaren ezarpenean eratortzen diren kultura helburuak eta tentsio espazialak. Europar Batasuneko dokumentu ofizialen eta ikerketa kritikoen azterketa tematikoen bidez, ikerketak hainbat paradoxa estruktural identifikatzen ditu. Emaitez agerian uzten dute barne tentsioek hiri eraldaketa eztabaidagarriak dakartzatela, eta ustekabeko erresistentzia herrikoia pizten dituztela. Ikerketak gobernantza moldakorren eta testuinguruaren arabera ebaluazio sentikorren alde egiten du.

Hitz gakoak: Europako Kultur Hiriburu, hiri garapena, hiri berroneratzea, kultur politika.

Abstract

The European Capital of Culture (ECOC) programme has evolved from a mechanism for promoting European cultural identity to a broader instrument of urban development. Focusing on 27 capitals between 2007 and 2019, this study critically analyses the cultural objectives and spatial tensions that emerge in the programme's implementation. Drawing on thematic analyses of official European Union documents and scholarly critiques, this research identifies several structural paradoxes. The findings indicate that internal often lead to contested urban transformations and provoke unforeseen forms of popular resistance. The study highlights the need for adaptive governance and context-sensitive evaluation approaches.

Keywords: European Capital of Culture, urban development, urban regeneration, cultural policy.

1. Sarrera eta motibazioa: hiri garapenerako tresna eta kontraesana

1985ean abiarazi zenetik, ECOC programak 70 hiriburu baino gehiago izendatu ditu Europan zehar. Batasunaren kultur politikek gero eta garrantzi handiagoa hartu dute, eta horren isla garbia da programak hiri garapenerako tresna estrategiko gisa duen eginkizuna. Sassatelli (2009), Näss (2010) edota O'Callaghan-en (2011) arabera, bilakaera honek hiri mailako tentsio espazialak areagotu ditu. Hiriburuen inplementazio fisiko zein espazialak espezializatzen joan diren heinean, Peck eta Tickell-en (2002) “roll-out neoliberalism” kontzeptuaren isla nabarmenagoa bihurtu da, horrela, kultur politikak merkatuaren interesen mesedetan hiriak berroneratzeko tresna bilakatuz.

1980ko hamarkadan “goi kulturaren” hiri ustiapena gailendu zen bitartean (Atenas, Paris edo Florentzia bezalako kultur ondare nabarmena zuten hirien aldeko apustua eginez), 1990eko hamarkadan kulturaren bidezko suspertze ekonomikoan berezitu zen programa. Nechita (2015) eta Basaraba-k (2022) defendatzen duten bezala, sarritan gentrifikazio prozesuei lotu izan da, eta Lähdesmäki-ren (2014) arabera, 2005etik aurrera azpiegituren garapenarekin. Gaur eguneko markoan (2020-2033), ECOC hautagaitzak aurkezteko gidaren arabera, ondare iraunkorra bermatzeko tokian tokiko estrategiak sustatu behar dira (Europako Batzordea, 2021).

Oro har, Europako Batzordeak ECOC programa hiriak berroneratzeko, nazioarteko irudia hanpatzeko eta turismoa hazteko aukera gisa aurkezten du. Programak urte bateko kultur programazioa antolatzeke abagunea eskaintzen duen arren, sustatzen diren eragin ekonomikoek honako galdera hau planteatzen dute: zer da hiriburuak (eta ondorioz, Batzordeak) benetan lehenesten dutena? Hala, galdera honi aurre egiten dion ECOC programaren analisi kritiko bat planteatzen da ikerketa honetan, kulturaren bitartez bultzatutako hiri berroneratze prozesuetan gertatzen diren konplexutasunak eta kontraesanak azpimarratuz.


2. Arloko egoera eta helburuak: hiri inpaktuen ulermen kualitatiboa

Alde batetik, ikerketa Bianchini-k (1993) sortutako hiri- eta kultura-analisiaren esparru teorikoan eta Lähdesmäki (2011) zein Palonen-en (2010) ECOC politiken ebaluazio kritikoetan iradokitzen da. Garcia-ren (2004) gentrifikazio arriskuen ohartarazpena aintzat hartuta, Antonié *et al.*-ek (2023) hiriburu gehienak berrurbanizatu egin direla frogatzen dute, askotan inperatibo ekonomikoek bultzaturiko hiri berroneratzeen bitartez eta desparekotasun sozio-espazialak indartuz. Bestalde, programaren ekarpen ekonomikoei buruzko ikerketa zabala egin bada ere, dimentsio kualitatiboen azterketak urriak, aldizkakoak eta kasu ikerketetan zatikatuak izaten jarraitzen dute. 2007az geroztik, Batzordeak 14 adierazleren bitartez ebaluatu ditu hiriburuak, zeinetatik 11 kuantitatiboak diren eta 3 baino ez kualitatiboak (Fox eta Rampton, 2019). Sykes-ek (2011) uste du programak zinez hartu beharko lituzkeela ahalbidetzen dituen espazio- eta hiri-plangintzako ikuspegiak. Nechita-k (2015), berriz, Batzordeak bultzatutako ebaluazioetan argitasun eza dagoela azpimarratzen du, eta Richards eta Marques-ek (2016) neurri kuantitatiboak lehenesteak emaitza ekonomikoetara lerraturiko ikuspuntu partzialak sustatzen duela adierazten dute, hiri eraldaketen gardentasuna mugatuz. Arrakala akademiko honi helduz, ikerketak ECOC programak bultzatutako hiri eraldaketen ebaluazio integratuago baten alde egiten du. Helburu nagusia metodo kualitatiboen bidez programak hiri garapenean duen inpaktua ebaluatzea da. Ikerketak gobernantza egiturak, finantza mugak eta tokiko baldintzak aztertzen ditu, baita ustekabeko erronkak eta mugak identifikatu ere.

3. Ikerketa

3.1 Metodologia: hiriburuen eta diskurtsoen arteko konparaketa gurutzatuak

1. irudia. Metodologiaren eskema.



Ikerketaren euskarri teorikoa Braun eta Clarke-k (2006) definituriko analisi tematiko kualitatiboa da. Metodologiak datu kualitatiboen artean eredu kontzeptualak identifikatzea du helburu. Analisia bost fase iteratibotan banatzen da: iturri primarioen azterketa kontzeptualen bidezko datuen bilketa; datu esanguratsuenen eta gailentzen diren argudioen identifikazioa; eredu tematikoen definizioa eta kodeen taldekatzea; kontraste kontzeptuala eta azpimarraturiko datu esanguratsuenen ebaluazioa; eta gailentzen diren kontzeptuen ezarpena. Hurbilketa tematiko hau Laclau-ren (2005) eta Howarth *et al.*-en (2003) diskurtsoen teoria du ardatz. Metodologia arazo potentzialen identifikazioak bultzatzen du, eta Glynos eta Howarth-en (2007) esparru teorikoan oinarritzen da, iturri primarioen analisi esploratzailea erraztuz.

Ikerketaren euskarri juridikoa 1622/2006/EC Erabakiaren testuinguruko 27 hiriburuak dira. Erabakiak ECOC programaren historian lehen aldiz nahitaezko ebaluaketa sistematiko bat ezarri zuen. 12. artikularen arabera, Batzordeak hiriburu bakoitzaren urte amaierako ebaluaketa gauzatu, argitaratu eta Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Eskualdeen Batzordeari aurkeztu behar zien. Ebaluazio sistemak programaren helburuen betetze maila ebaluatzekeo metrika estandarizatuak bermatu zituen, hiri garapen estrategien azterketa konparatibo gurutzatuak erraztuz. Erabakia indarrean egon zen denbora tarteak 2007-2019 aldia hartzen du. 2019tik aurrera, eta 445/2014/EU Erabakiaren 16. artikularen arabera, ebaluazio betebeharrak hiriburu bakoitzari transferitu zitzaizkion, kanpo-ebaluazioa autoebaluazio bihurtuz. Honek ikerketa honen ikuspegitik kanpo geratzen den metodologia eta diskurtso aldagarritasuna ekarri zuen. Beste aldetik, 2007. urtea baino lehenagoko hiriburuen ebaluazioak aldizkakoak eta irizpide estandarizatu gabekoak ziren. Horrela, ikerketa 2007-2019 kohortearen azterketara mugatzen da, lege esparruak eskaintzen duen alderagarritasuna ustiatuz: Luxembourg eta Sibiu 2007, Liverpool eta Stavanger 2008, Linz eta Vilnius 2009, Essen-Ruhr, Pécs eta Istanbul 2010,

Tallinn eta Turku 2011, Guimarães eta Maribor 2012, Košice eta Marseille-Provence 2013, Riga eta Umeå 2014, Mons eta Plzeň 2015, Donostia/San Sebastián eta Wrocław 2016, Aarhus eta Pafos 2017, Leeuwarden-Friesland eta Valletta 2018, eta Matera-Basilicata eta Plovdiv 2019.

Ikerketa atzerabegirako ikuspuntutik eginda dago, eta Batasunaren dokumentazio ofizialaren hiru datu iturri kategoriatan oinarritzen da. Lehen mailako iturriak Batzordeak hiriburuei urte amaieran egindako *Ex-post* ebaluazio txostenak dira. Bigarren mailako iturri gisa, Batzordeak Batasuneko beste erakundeei aurkeztutako hainbat txosten hautatu dira: *Ex-post* ebaluazioen laburpenak, hiriburuei zuzendutako Jarraipen eta Aholkularitzako Adituen Taldearen monitorizazio- eta aholkularitza-txostenak eta hiriburuaren Aurre eta Amaiera Hautagaitza txostenak. Hirugarren maila batean, Batasunaren gardentasun atarietan argitaraturik dauden ECOC tematikako dokumentuak aukeratu dira. Guztira, Batasuneko 99 dokumentu aztertu dira¹. Dokumentazio ofiziala triangulatuz, ikerketa esparru akademikoko azterketekin biribildu da. Horrela, dokumentu ofizialen mendekotasun metodologikoaren ondorioz sor daitekeen diskurtso joerak heltzen eta ikuspuntu alternatiboak txertatzen dira. Izan ere, Meekes *et al.*-ek (2017) frogatzen duten bezala, dokumentazio ofizialak hiriburuetan gertatzen diren konplexutasun asko tangentialki onartzen dituen bitartean, batzuetan, ez dira behar bezala aitortzen.

3.4 Eztabaida: hiri estrategien azterketa tematikoa

2. irudia. Identifikaturiko sei arlo tematikoak eta dagozkien hiriburuak.

Berroneratze post-industrialak	Ondare historikoaren berroneratzeak	Azpiegituren bidezko garapena	Kultur programa nagusi	Dimentsio sozial azpimarragarria	Krisiek eragindakoak
Luxembourg 2007	Sibiu 2007	Marseille-	Rīga 2014	Stavanger 2008	Vilnius 2009
Linz 2009	Liverpool 2008	Provence 2013	Umeå 2014	Turku 2011	Pécs 2010
Essen-Ruhr 2010	Istanbul 2010	Mons 2015	Leeuwarden-	Maribor 2012	Tallinn 2011
Košice 2013	Valletta 2018	Wrocław 2016	Friesland 2018	Donostia/San	Guimarães 2012
Plzeň 2015	Matera-Basilicata 2019	Aarhus 2017		Sebastián 2016	
	Plovdiv 2019			Pafos 2017	

Berroneratze post-industrialek, oro har, estrategikoki industria ondarearen berrerabilpena, kultur sektorearen garapena eta partaidetzaren sustapena uztartzen dute, ikuspegi deszentralizatuen zein arkitektura ikonoen bidez. Essen-Ruhr 2010ek, Ruhr arro industrial metropoli kultural bilakatzeko apustuarekin bat egin zuen. Crepaz *et al.*-ek (2016) lurralde eredu deszentralizatu eta behetik gorako eta maila anitzeko gobernanta indargune gisa nabarmentzen dute. Luxembourg 2007k industriagune abandonatuak gazteen partaidetzara zuzenduta berrizatu zituen, eta Linz 2009k, aldiz, arte eta kultura digitalen garapenaren eskutik. Antzera, Košice 2013k langile auzoetako zentral termikoen sarea gizarte zentrotan birmoldatu zuen, parte-hartzearen deszentralizazioa sustatuz. Hudec eta Džupka-k (2016) sakabanaketaren eraginkortasuna nabarmentzen dute. Era berean, belaunaldi arrakala bat identifikatzen dute: kulturaren bidezko berroneratze prozesua tokiko gazteenek babesten duten bitartean, adindunenek jarrera eszeptikoagoak azaltzen dituzte. Gainera, Džupka eta Gróf-ek (2021) hiriburutzaren ondorengo bi urteetan etxebizitzaren prezioek izandako gorakada identifikatu dute. Bestalde, Plzeň 2015 ikono espazialen bidezko berroneratze estrategiara atxiki zen. Industriagune kultural berriak balio sinbolikoekin uztartu zituen, estetika industrial idea kosmopolitekin lotuz. Matušková eta Nosková-k (2017) tokiko pertzepzio positiboak hiriaren irudi berrizatuari, turistifikazioari eta azpiegitura berrien irekierari egozten dizkiete.

Ondare historikoan oinarrituriko berroneratzeek ondare kultural eraikiaren kontserbazioaren, komertzializazioaren eta eskala handiko hiri eraldaketan arteko tentsioak agerian jartzen dituzte. Valletta 2018k ondare historikoa zaharberrituz eta neurri handiko azpiegitura proiektuak ezarriz, hainbat hamarkadaz luzaturiko utzikeria irauli zuen. Hala ere, Ebejer *et al.*-ek (2021) kultura arloan egindako aurrerapausoak hiri berroneratze prozesu desorekatu baten kontura gertatu direla kritikatu dute. Desparekotasunak sustatu eta bizigarritasuna murriztu duen komertzializazioa eta turistifikazioa ere salatzen dute. Bestetik, Oancă-k (2010) Sibiu 2007ren

¹ <https://culture.ec.europa.eu/policies/culture-in-cities-and-regions/european-capitals-of-culture>; <https://www.europarl.europa.eu/thinktank/en/research/advanced-search>; <https://op.europa.eu/en/home>; <https://culture.ec.europa.eu/resources/document-library>; <https://eur-lex.europa.eu/homepage.html?locale=en>

Erdi Aroko hirigunearen eta kultur azpiegituren suspertze estrategiaren inguruan eraikiriko arrakasta diskurtsoa kritikatu egiten du, udal koalizioaren politikak legitimatzeko instrumentalizatu zelako eta hiriko maila boteretsuenen interesak lehenetsi zituelako. Liverpool-ek, berriz, ondorio larriak jasan zituen. Turistifikazioa helburu, 2008an *Royal Albert Dock*-en birmoldaketa katalizatu zen. Hala ere, ibaiertzaren gehiegizko garapenak UNESCOren Munduko Ondarearen zerrendatik kanporatzea eragin zuen 2021ean, itsas ondareari eragindako kalte konponezinen ondorioz. West-ek (2022) udalak UNESCOren barne eztabaidaren inguruan adierazitako narratiba barkaberak kritikatzan dituen bitartean, Boland-ek (2010), oinarrietatik jartzen ditu zalantzan hiriburuaren ustezko arrakasta eta ospakizun diskurtsoak. Bestalde, Istanbul 2010ek eskala handiko hiri berroneratzeak sustatzen eta ondare historikoa babesten eta erregulatzen zituen plangintza tresna berriak legeztatu zituen. Halaber, Gunay-k (2009) udalak sustaturiko kontserbazio eta berrikuntzaren arteko kontraesan "basatiak" mahaigaineratzen ditu. Erronka sozioekonomikoei helduz, Matera-Basilicata 2019k pobrezia eta bizi baldintza eskasei loturiko hiri testuinguru batetatik kulturaren bidezko berroneratze prozesu batera zuzendu zen, tokiko ekonomia suspertzeko eta gizarte kohesioa sustatzeko. Antzera, Plovdiv 2019k ondarearen zaharberritzea izan zuen ardatz. Aldiz, Dogramadjieva eta Tylko-k (2022) tokiko bizi kostuen handitzearen ondorio negatiboa adierazten dute.

Azpiegituren sustapena hiri garapenerako plangintza tresna zabalagoetan txertatuta azaldu ohi da eta azaleratzen diren tentsioak desoreka espazialei, partaidetza mugatuari eta epe luzeko eraginei lotzen dira. Marseille-Provence 2013k azpiegitura berrietan oinarritutako berroneratze zabala bultzatu zuen, *Marseille-Euroméditerranée* epe luzerako hiri plangintza proiektuan txertatuz. Andres-ek (2011) hiriburutza 30 urteko berroneratze prozesu baten azken faseetako gisa deskribatzen du, eta jazotako hiri plangintzaren gehiegizko zentralizazioa, kontrolik gabeko hazkunde, eskualde ikuspegi desorekatua eta gentrifikazioa kritikatzan ditu. Giovanangeli-k (2015) hiri tentsioak ikuspegi komunitario batetik sakonago aztertzen ditu, bereizkeria eta klase politikoaren interes lerratua kritikatzan. Mons 2015ek, aldiz, espezializazio kulturala sustatzen zuen azpiegiturak lehenetsi zituen, eskualdeko desindustrializazioari erantzuten zion epe-luzerako hiri plangintzarekin bat etorriz. Hala ere, Jojczyk-ek (2018) kudeaketaren kontraesanak nabarmentzen ditu, eta erakundearen gehiegizko kontrolak tokiko kultur eragileak urrundu zituela eta komunitatearen etsipena eragin zuela frogatzen du. Wrocław 2016k aldiz inpaktu sozial onuragarriagoak jaso zituen, Sanetra-Szeliga-en (2022) arabera hiri bizi-kalitate hobeko batekin lotuz. Aarhus 2017ren kasuan, *Urban Mediaspace* hiri proiektuaren bitartez, azpiegitura berriak hiri mailako kohesio tresna espazial gisa aurkeztu ziren, Aarhus ibaiertza eraberrituz eta portu komertziala erabilera mistorako birmoldatuz.

Kultur programazioa kultur azpiegituren sustapenaren gaineratik jartzen duten estrategiek parte-hartzean eta kultura sektorean hobekuntzak trazatu ohi dituzte, baina epe luzeko eragin desiratuaren inguruko arazoak azaleratu ohi dira (Turşie eta Perrin, 2020). Zenbait hiriburuk lehentasun ekonomikoen eta herri mugimenduen arteko tentsioei aurre egin zieten. Umeå 2014k hiriburutzaren aurreko urteetan eraikitako kultur azpiegitura berriak kapitalizatu zituen eta komunitate jarduerak osatutako programazio zabal bat garatu zuen. Arrakasta gisa aurkeztu bazen ere, Hudson *et al.*-ek (2017) kultur profesionalen kritikak nabarmentzen dituzte: irabazi asmoko hirigintza, kulturaren instrumentalizazioa eta despoltizazioa eta parte-hartzearen murrizketa. Rīga 2014en, aldiz, ez zen azpiegitura berrietan inbertitu, eta hiria espazialki irudikatzeko kultur programa bat garatu zen. Prilenska eta Liias-ek (2015) programazioaren arrakasta erabilpen eta kalitate eskaseko hiri espazioen suspertzearekin, aurrekontu mugatuko esku-hartzeekin eta herri mugimenduen ahalduntzearekin lotzen dute. Eskualde eskala zabalago batetik, Leeuwarden-Friesland 2018k "pertsonak egituren gaineratik" leloaren pean jardun zuen.

Nahiz eta dimentsio soziala ECOC programaren estrategiaren zati bada ere, ez da beti modu koherentean garatzen. Muga finantzarioek edo testuinguru politikoek baldintzatzen dute, eta, kasurik interesgarrienetan, ustekabeko emaitza ez-material gisa sortzen da. Maribor 2012k finantza- eta administrazio-erronkei aurre egin behar zien, eta ondorioz, hiri garapenerako proiektu oro bertan behera utzi ziren. Žilich-Fišer eta Erjavec-en (2017) arabera, egoera hartatik eratorriko ondoreak herritarren ahalduntzea bideratu zuen eta udalaren eta bere hiri politika

neoliberalen aurkako behetik gorako mugimenduak hezuramamitu ziren. Antzera, Turku 2011 herri mugimenduan eta hiri garapen parte-hartzailean zentratu zen, baina kritikak jaso zituen espazio publikoen erabilera, finantzaketa eta gobernantza eredu dela eta. Lähdesmäki-k (2013), herritarren eta erakundeen arteko tentsioak azalduz, balio anti-neoliberalak zituen kontra-mugimendu baten sorrera deskribatzen du. Helburu soziopolitikoak txertatuz, Donostia/San Sebastián 2016k, euskal gatazkarekin lotutako kultur adierazpenak eta bakea sendotzeko ahaleginak azpimarratu zituen, nahiz eta erreakzioak askotarikoak izan ziren. Zipreko gatazkak eragindako segregazio sozialari eta kultur azpiegituren eskasiari heldu zion Pafos 2017k. Dova *et al.*-ek (2022), tokiko komunitatearen parte-hartze maila baxua eta hiriak eskura zituen baliabide urriak kudeatzeko arazoak aztertzen dituzte. Aldiz, Stavanger 2008k testuinguru ekonomiko oparoan garatu bazen ere, Bergsgard eta Vassenden-ek (2010) despaketotasun sozio-espazialen areagotzea salatzen dute: hiriko botere egiturak indartu ziren eta irabazien banaketa zentralizatu zen, erakunde handiei mesede eginez, kultur ekintzaileen kaltetan.

Azkenik, 2008ko finantza krisiak eta austeritate neurriek eragin nabarmena izan zuten hainbat hiriburuen inplementazioan eta inpaktuan, finantza mugak eta eskala txikiagoko proiektuak sortuz. Vilnius 2009k programazioa hiri garapen zabalagoekin lerrokatzeko zailtasunak izan zituen, bere eskala nabarmen murriztuz. Pécs 2010 ondare industrial eta hirigune historikoa berritzen saiatu zen, baina finantzaketa defizitak eta administrazio arazoek eragindako atzerapenei aurre egin behar zien. Udalak finantza karga gehiena bere gain hartu behar zuen, eta Kovacs-ek (2013), zailtasunak deskribatuz, maila anitzeko gobernantza eza, behetik gorako ikuspegi eza eta azpiegitura berriak mantentzeko ezintasuna aitortzen du. Antzera, Tallinn 2011k itsas eremu industrial kultura- eta aisialdi-gune batean eraberritzeko asmoa zuen, baina austeritate neurriek esku-hartze puntualetara mugatu zuen ekimena. Guimarães 2012, berriz, Portugalgo finantza krisiaren garaian jardun zuen eta eskala txikiko azpiegitura proiektuak lehenetsi zituen.

3., 4., 5. eta 6. irudiak: *Zollverein* industrialdea (Essen-Ruhr 2010), *MUŻA* arte museoa (Valletta 2018), *DOKK1* kulturunea (Aarhus 2017) eta Riga 2014ren behin-behineko pabiloia.²



4. Ondorioak: lehia, hauskortasuna eta ustekabeak

1622/2006/EC Erabakiaren esparruan aztertutako 27 hiriburuen analisiak kulturaren bitartez bultzaturiko hiri berroneratzeen bai kontraesanak zein ahalmen eraldatzailea agerian uzten ditu. Ikerketak hiru ondorio orokor identifikatu ditu, eremu estrategikoen, testuinguru soziopolitikoaren eta kanpo faktoreen arteko elkarrekinak zehaztuz:

- Lehia indarren paradoxa: ECOC programak elkarren artean etengabe talkan ari diren tentsioei aurre egin behar dio. Eredu deszentralizatuaren parte-hartzea sustatzen denean, emaitza zatikatuak sortzeko arriskua dago. Aitzitik, ikono espazialen bidezko proiektuek ikusgarritasuna areagotu dezakete, baina metrika ekonomikoak lehenesteko arriskua dute, desberdinkeria eta homogeneizazio kulturala bizkortuz.
- Legatuaren hauskortasuna: hiriburuen epe luzeko inpaktua gobernantza egituren eta haien moldagarritasunaren araberakoa da. Azpiegituren bidezko berroneratzeek inpaktu neurgarriak ekar ditzakete, baina erakunde gehiegizko zentralizazioak edo esku-

² Iturriak: <https://www.zollverein.de/>; <https://muza.mt/>; <https://www.dokk1.dk/>; <https://www.archdaily.com/>

hartzeak tokiko komunitateak alienatzeko eta desparekotasun espazialak sakontzeko arriskua dute. Aitzitik, kostu txikiko esku-hartze parte-hartzaileen balioa nabarmentzen da, nahiz eta horien epe luzerako inpaktua maiz erakundeen sostenguari menpe egon.

- Ustekabeko emaitza ez-materialak katalizatzaile gisa: hiriburu marketsenek ere ondorio soziopolitiko garrantzitsuak eragin dituzte. Erakundeen hutsegiteek politika neoliberalerako erresistentzia zibikoa oharkabeen suspertu duten bitartean, testuinguru merkantilistek zuzenean esplizituki mahaigaineratu izan dituzte. Emaitzak bat datoz hiri teoria kritikoekin; hots, hiri berroneratze ekimenek agerikoak ez diren botere dinamikak agerian uzten, eta kontra-narratiboak nahiz behetik gorakoak diren espazio kritikoak sortzen dituztela.

Hortaz, ECOC programa ez da tresna neutral bat, hirigintza bera ere ez baita neutrala. Agenda kultural, ekonomiko eta politikoek talka egiten duten eztabaidarako agertoki dira, hain zuzen ere. Identifikatutako erronkek ikuspegi malguagoak eta testuinguruarekiko sentikorragoak behar direla iradokitzen dute, programaren berezko aukerak eta mugak aitortuko dituztenak.

5. Etorkizunerako norabidea: gobernantza, egokitzapena eta konpromiso kritikoa

ECOC programak gobernantza egokitzaleari, ekitateari eta ezusteko inpaktuen ebaluazio integralari lehentasuna emango dieten estrategiak garatzea eskatzen du. Honako ikerketa bide hauek aztertutako kasuen eta diskurtso akademikoaren konpromiso kritikotik sortzen dira: gobernantza parte-hartzaileak eta eskala anitzekoak; programazio moldagarriak eta testuinguruarekiko sentikorrak; ustekabeak eta erresilientzia sozialak; eta programaren politiken eta hiriburuen ebaluazio kritikoak.

6. Erreferentziak

- 1622/2006/EC Erabakia. *Decision N° 1622/2006/EC of the European Parliament and of the Council of 24 October 2006 establishing a Community action for the European Capital of Culture event for the years 2007 to 2019*. <http://data.europa.eu/eli/dec/2006/1622/oj>
- 445/2014/EU Erabakia. *Decision N° 445/2014/EU of the European Parliament and of the Council of 16 April 2014 establishing a Union action for the European Capitals of Culture for the years 2020 to 2033 and repealing Decision N° 1622/2006/EC*. [http://data.europa.eu/eli/dec/2014/445\(1\)/oj](http://data.europa.eu/eli/dec/2014/445(1)/oj)
- Andres, L. (2011). Marseille 2013 or the final round of a long and complex regeneration strategy? *Town Planning Review*, 82(1), 61–76. <https://doi.org/10.3828/tpr.2011.5>
- Antonić, B., Djukić, A., & Marić, J. (2023). Shrinking Cities as European Capitals of Culture: Has this Status enabled their Reurbanisation? *IOP Conference Series. Earth and Environmental Science*, 1196(1), 12095. <https://doi.org/10.1088/1755-1315/1196/1/012095>
- Asle Bergsgard, N., & Vassenden, A. (2011). The legacy of Stavanger as Capital of Culture in Europe 2008: watershed or puff of wind? *International Journal of Cultural Policy : CP*, 17(3), 301–320. <https://doi.org/10.1080/10286632.2010.493214>
- Basaraba, N. (2023). Cross-comparing the Concept of "United in Diversity" as Expressed by European Capitals of Culture. *Journal of Intercultural Communication Research*, 52(4), 357–378. <https://doi.org/10.1080/17475759.2022.2155865>
- Bianchini, F. (1993). Culture, Conflict and Cities: Issues and Prospects for the 1990s. In F. Bianchini, & M. Parkinson (Eds.), *Cultural policy and urban regeneration. The west European experience* (pp. 199–213). Manchester University Press.
- Boland, P. (2010). 'Capital of Culture-you must be having a laugh!' Challenging the official rhetoric of Liverpool as the 2008 European cultural capital. *Social & Cultural Geography*, 11(7), 627–645. <https://doi.org/10.1080/14649365.2010.508562>
- Braun, V., & Clarke, V. (2006). Using thematic analysis in psychology. *Qualitative Research in Psychology*, 3(2), 77–101. <https://doi.org/10.1191/1478088706qp063oa>
- Crepaz, L., Huber, C., & Scheytt, T. (2016). Governing arts through valuation: The role of the state as network actor in the European Capital of Culture 2010. *Critical Perspectives on Accounting*, 37, 35–50. <https://doi.org/10.1016/j.cpa.2015.03.002>

- Dogramadjieva, E., & Tylko, K. (2023). EUROPEAN CAPITAL OF CULTURE PLOVDIV 2019: EFFECTS THROUGH THE LENS OF THE LOCAL COMMUNITY. *Zbornik Radova (Geografski Institut "Jovan Cvijić". Online)*, 73(1), 49–63. <https://doi.org/10.2298/IJGI2301049D>
- Dova, E., Sivitanidou, A., Anastasi, N. R., & Tzortzi, J. G. (2022). A mega-event in a small city: community participation, heritage and scale in the case of Pafos 2017 European Capital of Culture. *European Planning Studies*, 30(3), 457–477. <https://doi.org/10.1080/09654313.2021.1959721>
- Džupka, P., & Gróf, M. (2021). The influence of the new cultural infrastructure on residential property prices. Evidence from Košice ECoC 2013. *Cities*, 110, 103047. <https://doi.org/10.1016/j.cities.2020.103047>
- Ebejer, J., Xuereb, K., & Avellino, M. (2021). A critical debate of the cultural and social effects of Valletta 2018 European Capital of Culture. *Journal of Tourism and Cultural Change*, 19(1), 97–112. <https://doi.org/10.1080/14766825.2020.1849240>
- Europako Batzordea. (2021). *A guide for cities preparing to bid - European Capitals of Culture 2020 to 2033*. https://culture.ec.europa.eu/sites/default/files/capitals-culture-candidates-guide_en_vdec17.pdf
- Fox, T., & Rampton, J. (2019). *Ex-post evaluation of the 2018 European capitals of culture : final report*, Publications Office. <https://data.europa.eu/doi/10.2766/274860>
- Garcia, B. (2004). Cultural Policy and Urban Regeneration in Western European Cities: Lessons from Experience, Prospects for the Future. *Local Economy*, 19(4), 312–326. <https://doi.org/10.1080/0269094042000286828>
- Giovanangeli, A. (2015). Marseille, European Capital of Culture 2013 Ins and Offs: A case for rethinking the effects of large-scale cultural initiatives. *French Cultural Studies*, 26(3), 302–316. <https://doi.org/10.1177/0957155815587236>
- Glynos, J., & Howarth, D. (2007). *Logics of Critical Explanation in Social and Political Theory*. Routledge. <https://doi.org/10.4324/9780203934753>
- Gunay, Z. (2010). Conservation versus Regeneration?: Case of European Capital of Culture 2010 Istanbul. *European Planning Studies*, 18(8), 1173–1186. <https://doi.org/10.1080/09654311003791234>
- Howarth, D., Norval, A. J., Stavrakakis, Y., & Townshend, J. (2003, Feb 1). Discourse theory and political analysis: identities, hegemonies and social change. *British Journal of Politics & International Relations*, 5, 129–142. <https://search.proquest.com/docview/38451311>
- Hudec, O., & Džupka, P. (2016). Culture-led regeneration through the young generation: Košice as the European Capital of Culture. *European Urban and Regional Studies*, 23(3), 531–538. <https://doi.org/10.1177/0969776414528724>
- Hudson, C., Sandberg, L., & Schmauch, U. (2017). The co-creation (of) culture? The case of Umeå, European Capital of Culture 2014. *European Planning Studies*, 25(9), 1538–1555. <https://doi.org/10.1080/09654313.2017.1327032>
- Jończyk, J. (2018). The role of cultural mediation in the learning of the inhabitant. *Social Policies*, n° 3-4(2), 77-85. <https://doi-org.ehu.idm.oclc.org/10.3917/lps.183.0077>
- Kovács, I. P. (2013a). Pécs, as the victim of multi-level governance: the case of the project 'European Capital of Culture' in 2010. *Urban Research & Practice*, 6(3), 365–375. <https://doi.org/10.1080/17535069.2013.827907>
- Laclau, E. (2005). *On populist reason*. Verso.
- Lähdesmäki, T. (2011). Contested Identity Politics: Analysis of the EU Policy Objectives and the Local Reception of the European Capital of Culture Program. *Baltic Journal of European Studies*, 1(2), 134–166.
- Lähdesmäki, T. (2013). Cultural activism as a counter-discourse to the European Capital of Culture programme: The case of Turku 2011. *European Journal of Cultural Studies*, 16(5), 598–619. <https://doi.org/10.1177/1367549413491720>

- Lähdesmäki, T. (2014). Identity politics of the European Capital of Culture initiative and the audience reception of cultural events compared. *Nordisk Kulturpolitisk Tidskrift*, 16(2), 340–365. <https://doi.org/10.18261/ISSN2000-8325-2013-02-09>
- Matušková, A., & Nosková, M. (2017). Náznaky obyvatel Plzně na projekt Plzeň – Evropské hlavní město kultury 2015 rok poté. *Trendy V Podnikání*, 6(4), 70–79. <https://doaj.org/article/0328f6cdf0ac4295b4478b48bc6c7293>
- Meekes, J. F., Buda, D. M., & De Roo, G. (2017). Leeuwarden 2018: Complexity of Leisure-Led Regional Development in A European Capital of Culture. *Tijdschrift Voor Economische En Sociale Geografie*, 108(1), 129–136. <https://doi.org/10.1111/tesg.12237>
- Näss, H. E. (2010). The ambiguities of intercultural dialogue: critical perspectives on the European Union's new agenda for culture. *Journal of Intercultural Communication*, 23 <https://search.proquest.com/docview/850556103>
- Nechita, F. (2015). Bidding for the European Capital of Culture: Common Strengths and Weaknesses at the Pre-Selection Stage. *Bulletin of the Transilvania University of Braşov. Series VII, Social Sciences, Law*, (1), 103–116. <https://www.ceeol.com/search/article-detail?id=290460>
- Oancă, A. (2010). *Governing the European Capital of Culture*. http://www.etd.ceu.hu/2010/oanca_alexandra.pdf
- O'Callaghan, C. (2012). Urban anxieties and creative tensions in the European Capital of Culture 2005: 'It couldn't just be about Cork, like'. *International Journal of Cultural Policy : CP*, 18(2), 185–204. <https://doi.org/10.1080/10286632.2011.567331>
- Palonen, E. (2011). Multi-Level Cultural Policy and Politics of European Capitals of Culture. *Nordisk Kulturpolitisk Tidskrift*, 13(1), 87–108. <https://doi.org/10.18261/issn2000-8325-2010-01-07>
- Peck, J., & Tickell, A. (2002). Neoliberalizing Space. *Antipode*, 34(3), 380–404. <https://doi.org/10.1111/1467-8330.00247>
- Prilenska, V., & Liias, R. (2015a). Challenges of Recent Participatory Urban Design Practices in Riga. *Procedia Economics and Finance*, 21, 88–96. [https://doi.org/10.1016/S2212-5671\(15\)00154-9](https://doi.org/10.1016/S2212-5671(15)00154-9)
- Richards, G., & Marques, L. (2016). Bidding for Success? Impacts of the European Capital of Culture Bid. *Scandinavian Journal of Hospitality and Tourism*, 16(2), 180–195. <https://doi.org/10.1080/15022250.2015.1118407>
- Sanetra-Szeliga, J. (2022). Culture and heritage as a means to foster quality of life? The case of Wrocław European Capital of Culture 2016. *European Planning Studies*, 30(3), 514–533. <https://doi.org/10.1080/09654313.2021.1959724>
- Sassatelli, M. (2009). *Becoming Europeans: Cultural Identity and Cultural Policies*. Palgrave Macmillan.
- Sykes, O. (2011). Introduction: European cities and capitals of culture — a comparative approach. *Town Planning Review*, 82(1), 1–11. <https://doi.org/10.3828/tpr.2011.8>
- Turşie, C., & Perrin, T. (2020). Assessing the social and cultural impacts of the European Capital of Culture programme in cross-border regions. A research agenda. *Eastern Journal of European Studies*, 11(SI), 77–98. <https://www.ceeol.com/search/article-detail?id=913900>
- West, T. (2022). Liverpool's European Capital of Culture legacy narrative: a selective heritage? *European Planning Studies*, 30(3), 534–553. <https://doi.org/10.1080/09654313.2021.1959725>
- Žilič-Fišer, S., & Erjavec, K. (2017). The political impact of the European Capital of Culture: 'Maribor 2012 gave us the power to change the regime'. *International Journal of Cultural Policy : CP*, 23(5), 581–596. <https://doi.org/10.1080/10286632.2015.1084299>

7. Eskerrak eta oharrak

Ikerketa hau Euskal Herriko Unibertsitatean Eusko Jaurlaritzaren Doktoratu Aurreko Programaren laguntzarekin gauzatu da, eta doktorego tesi zabalago baten parte da.